

# Torturaren prebentzioaren alde

## Bartzelonan 2006.ko martxoan

Los días 3 y 4 de febrero de 2006 se celebró en Barcelona las "Jornadas sobre la Prevención de la Tortura, la Implantación del Protocolo Facultativo contra la Tortura y las Recomendaciones del Relator de la ONU" con la presencia activa de Theo van Boven, ex-Relator de la ONU sobre la Tortura y con la participación de organismos de derechos humanos internacionales de reconocido prestigio y autoridad en la lucha contra la tortura. Las Jornadas fueron organizadas por la Coordinadora para la Prevención de la tortura, en la que se integran 37 organismos que están en contacto directo con las víctimas de la tortura, que vehiculizan sus denuncias y que en definitiva tienen la información exhaustiva y real de la situación en torno al fenómeno de la tortura y los malos tratos en el Estado español. El objetivo principal de estas jornadas era incidir en el debate abierto ante la firma, próxima ratificación y posterior implementación por parte del Gobierno español del Protocolo Facultativo de Naciones Unidas. En esa voluntad, contó con participaciones, tanto de ponentes como del propio público asistente de alta calidad y ciertamente clarificadoras sobre los pasos que debe seguir la lucha contra la tortura en el Estado español.

Durante los debates que tuvieron lugar en estas Jornadas, quedó patente la persistencia de la tortura en el Estado español, tanto por

las denuncias y los testimonios de aquellas personas que la han sufrido directamente, como por el informe publicado por la Coordinadora para la Prevención de la Tortura (CPT) en mayo de 2005, en el que se apunta que casi 800 personas denunciaron haber sido torturadas el año 2004, (otros muchos casos de torturas y malos tratos no fueron denunciados por temor), y que entre los años 2001 y 2004, fueron imputados 227 miembros de las fuerzas de seguridad en delitos relacionados con la práctica de la tortura. Pese a este y otros informes, las autoridades estatales como autonómicas o locales, siguen negando esta realidad y desoyendo las recomendaciones de organismos internacionales y estatales para prevenir la tortura.

De la misma forma quedó constancia de impunidad que envuelve la práctica de la tortura en el Estado español: desde el mantenimiento de la detención incomunicada y el aislamiento penitenciario, regímenes que facilitan y dotan de sistematicidad a la práctica de la tortura, continuando con la falta de investigación real e independiente de las denuncias por jueces y fiscales, y acabando por la adjudicación de indultos y medidas de gracia a los pocos funcionarios que, finalmente, son condenados por los Tribunales de Justicia. Por todo ello, y para erradicar la tortura, efectuamos las siguientes

## Tortura ezabatzeko neurriak

### Tortura ezabatzeko neurriak

3. Atxiloketa inkomunikatuek eta espetxeko bakartze-erregimenak torturatze eta praktika hori zigorrik gabe geratzeko baldintzak sortzen dituzte, tortura gertaera sistematikoa bihurtuz. Horregatik, salbuespeneko tresna horiek berehala ezabatu behar dira, bai eta tresna horiek erabiltzen eta babesten dituzten lege eta auzitegiak, Auzitegi Nazionala esaterako. Berezko epaileak berreskuratu behar dira, halaber, eta atxilotuak torturatuz lortutako erruztapenetan norberarenak nahiz beste inorenak oinarritutako prozedura penal guztiak eten eta artxibatu egin behar dira..

4. Aurreko guztia baztertu gabe, torturatzea galarazteko prebentzio-neurriak jarri behar dira abian. Horretarako, inor atxilotzean atxilotuari deklarazioa hartu behar zaio, ez deklaratzeko eskubide konstituzionalari heldu nahi ote dion galdetuz. Hala bada, atxilotua epailearen esku utziko da berehala, eta adierazpen hori egiten duenetik epailearen aurrean deklaratzeko duen arte egindako galdeketa eta adierazpenek ez dute baliorik izango. Galdeketa diren pertsona guztiak identifikatu egin behar dute, galdeketa edo prozesu judizialean duten zeregina zehaztuz. Galdeketa eta polizia-etxean emandako denbora guztia ikus-entzunezko bitartekoen bidez grabatu behar dira. Bitarteko horiek polizia-indarrez eta haien arduradun politiko zuzenez bestelako erakundeek kontrolatu eta berrikusi beharko dituzte. Polizia-etxean eta galdeketa kaputxadunik egotea berariaz debekatu behar da.

1. Estatu osoko agintari eta erakunde gorenek tortura eta tratu krudel nahiz iraingarri guztien debekua berretsi egin beharko dute jendaurrean eta ofizialki, eta Espainiako Estatuan fenomeno hori noizbehinka baino maizago gertatzen dela onartu beharko dute.

2. Estatuaren segurtasun-indarrek atxilotutako pertsona guztiei ondorengo eskubide hauek bermatzen zaizkiela ziurtatu beharko da, berehala eta eraginkortasunez: **a)** deklaratu aurretik konfiantzazko abokatuarekin biltzeko eskubidea. Atxilotuak ofiziozko abokatuak aukeratuz gero, jardueraprotokolo bat bete beharko du abokatu horrek, eta atxilotuei laguntza ematen esperientzia izan beharko du, halaber. **b)** konfiantzazko medikuek osasun-azterketa egiteko eskubidea, tortura edo tratu txarren kasuetan esku hartzen duten auzi-medikuek nazioarteko protokolo eta estandarrak Istanbulgo Protokoloa, adibidez betetzen dituztela eta tortura fisiko nahiz psikikoak diagnostikatzeko eta halakoen ondorioak baloratzeko prestakuntza berezia dutela ziurtatuz, eta **c)** atxilotuaren senide eta lagunei atxiloketaren berri ematea, atxilotze-lekua, atxilotuaren osasun-egoera eta egoera judiziala zehaztuz.

**5.** Atxilotuta nahiz espetxean dagoen inori ez zaio inolako zentzumen-isolamendurik ezarriko, eta berariaz debekatu behar da begiak estaltzea, buruan kaputxarrik jartzea edo belarriak estaltzea. Bestalde, funtzionarioen geletan dauden arauz kanpoko material guztiak (babeserakoak nahiz erasorakoak) konfiskatu egin behar dira. Era berean, Torturaren Aurkako Ituneko 16. artikuluan berariaz debekatutako galdeketa-teknikak Espainiako Estatuan debekatzen direla bermatu behar da.

**6.** Torturaren eta Bestelako Tratu edo Zigor Krudel, Anker edo Iraingarrien aurkako Nazio Batuen Hitzarmeneko Aukerazko Protokoloa berretsi behar du Gobernuak eta protokolo horretan jasotako Estatuko prebentzio-tresnaren eta herri-mailako prebentzio-tresnen independentzia bermatu beharko du. Horretarako, Protokolo hori gizarte zibilarekin, torturaren aurka lan egiten duten antolakundeekin eta kontrolerako nazioarteko erakundeekin bat etorri garatu behar dela onartuko du. Torturaren eta Bestelako Tratu edo Zigor Krudel, Anker edo Iraingarrien aurkako Nazio Batuen Hitzarmeneko Aukerazko Protokoloa garatzeko izendatutako ordezkariak eskubide osoa izango dute ondoko zeregin hauek egiteko: atxilotze-guneak Protokoloan jasotako adiera zabalean bisitatu eta ikuskatzeko; auzi-medikuen jarduera ikuskatzeko, jarduteko nazioarteko estandarrek betetzen direla ziurtatzeko bereziki; salaketen inguruko ikerketetan aholku emateko; epaileengandik informazioa jasotzeko eta legea urratu duten funtzionarioei ezarritako zigorrak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko.

**7.** Zaintza-lanean diharduten funtzionario guztiek torturatzea debekatuta dagoela dakitela, giza eskubideak babesteko nazioarteko protokoloen inguruko prestakuntza egokia dutela eta atxilotuek eta presoek dauzkaten eskubide eta askatasunak uneoro errespetatu ahal izateko ezaguera sozio-kulturalak dituztela ziurtatu behar dute Gobernuak eta eskumeneko agintariak.

**8.** Tortura eta tratu txarrak salatzen direnean salaketa horiek independentziaz, berehala eta eraginkortasunez ikertzen direla bermatu beharko da, nazioarteko legeak eta bi fenomeno horien inguruko nazioarteko erakundeen ebazpenak betetzen direla ziurtatuz. Era berean, zaintzapean gertatutako heriotza guztiak azkar eta eraginkortasunez ikertzen direla bermatu beharko da. Salatutako ekintzen inguruko ikertze-neurriak ofizioz hartu beharko ditu fiskalak. Gobernuak, Estatuko fiskal nagusiaren bidez, fiskalak heziko ditu torturaren aurka aktiboki jardun dezaten. Hori guztia baztertu gabe, torturen biktimek laguntza juridiko espezializatua dohainik jasotzeko eskubidea izango dute beti.

**9.** Torturak salatzen badira, salatutako funtzionarioen aurkako legezko nahiz diziplinazko prebentzio-neurriak hartuko dira, eta gertakariak argitu arte lanetik kanpo uzteko kautelazko neurria hartuko da. Ikerketak ustezko egileak eta lanean diharduten gorputzak aparte utzita egin behar dira, eta NBEko Batzar Nagusiak 55/89 ebazpenean finkatutako printzipioekin bat etorri.

**10.** Tortura delituek preskribatzen ez dutela eta torturatu duen inor errugabe gelditzen ez dela ziurtatu behar da. Preskripzioei eta torturagatik zigortutako funtzionarioak indultzeari dagokienez, barkamenok ezin dute Gobernuaren esku egon. Tortura salatzen dutenei kalumniak, salaketa faltsua, lekukotasun faltsua edo talde armatuari laguntzea leporatzea halako gertakariak salatzeko beldurra sortzeko eta gertakarien zigorgabetasuna lortzeko errepresaliatzen baino ezin dira hartu.

**11.** Askatasunaz gabetutakoak giltzapetzeko lekua zehazteko garaian, gizartearekiko eta senideekiko harremanei eusteko aukera eta errehabilitazio sozialerako beharrak aintzakotzat hartzen direla ziurtatu behar da, Espainiako Konstituzioko 25.2. artikuluari jarraiki. Presoak sistematikoki sakabanatu edo urruntzea debekatuko da, aurreko printzipio hori bete-betean urratzen duelako.

**12.** Espetxean nahiz polizia-etxean emakumeen berezko beharrei erantzun behar zaie. Preso edo atxilotuta dagoenaren nortasun sexuala eraso lezaketen tratu iraingarri eta sexistak berariaz debekatu behar dira, eta atxilotu nahiz presoaren nortasun eta askatasun sexualerako eskubidea bermatu egin behar da poliziaren edo epaileen esku zein espetxean daudenean, gizonetakoak, transexualak edo emakumeak izan, eta edozein joera sexual dutela ere.

**13.** Etniari, erlijioari, kulturari, jatorriari edo beste edozein arrazoiri zor zaizkion bazterketetan oinarritutako tratu txar eta torturak kontu handiz tratatu behar dira. Halakoetan, torturak edo tratu txarrak salatzen dituenari errepresaliak etorririko ez zaizkiola ziurtatu behar zaio. Era berean, ondo gogoan hartu behar da torturatzen duten herrietara etorkinak itzultzea edo botatzea debekatuta dagoela, eta itzulketa edo kanporaketa egin duena dela gertatzen denaren erantzulea.

**14.** Bai polizia-etxeetan, bai adin txikikoen erreformatorioetan, bai beste edozein zaintza-erakundetan, adin txikikoei egindako torturak eta tratu txarrak ezabatzeke beharrezko neurri guztiak azkar batean hartu behar dira. Uneoro ziurtatu behar da adin txikikoak hartzeko eta tratatzeko baldintza onak daudela, eta zaintza-espazioetara bertaratuz baldintza horiek betetzen direla ziurtatu behar dute adin txikikoen epaile eta fiskalek. Askatasunaz gabetzeko zigorrak betetzen dituzten adin txikikoak inkomunikatzea edo bakartzea bereziki debekatu beharra dago.

**15.** Guztiz bermatu behar da atxilotu eta espetxeratuen osasunerako eta osotasun fisiko eta psikorako oinarritzko eskubidea. Gaixotasun larria dutenak edo espetxean edo polizia-etxean egonda beren gaixotasuna larritzea dutenak ez dira halakoetan sartuko. Era berean, herri-administrazioen eskumeneko psikiatrikoetan eskubide horiek betetzen direla ziurtatu beharko da. Atxilotu eta espetxeratuen higiene, osasungarritasun eta duintasun baldintzak ere bermatu egin behar dira.

**16.** Torturak edo tratu txarrak jasan dituztenek laguntza eta ordain egokiak jaso behar dituzte, hala nola, eragindako kaltea aitortzea, kalte-ordainak ordaintzea, beren egoera pertsonal berriak eragindako beharrei erantzutea eta halakorik berriz gertatuko ez dela ziurtatzea.

Acció dels Cristians per l'Abolició de la Tortura (ACAT), Alerta Solidària, Asociación APOYO, Asociación EXIL, Associació Catalana per la Defensa del Drets Humans, Associação Contra a Exclausão pelo Desenvolvimento, Asociación Contra la Tortura, Asociación para la Defensa de los Derechos de la Infancia, Asociación Libre de Abogados, Associació Memòria Contra la Tortura, Asociación Pro Derechos Humanos de Andalucía, Asociación de Solidaridad y Apoyo a los Presos de Aragón (ASAPA), Behatokia (Observatorio Vasco de Derechos Humanos - Euskal Herriko Giza Eskubideen), Centro de Asesoría y Estudios Sociales (CAES), Centro de Documentación Contra la Tortura, Comissió de Defensa del Col·legi d'Advocats Barcelona, Comité Anti-Sida de Lugo, Concepción Arenal, Comité de Solidaridad con Euskal Herria de Madrid, Coordinadora Antirrepresiva de Gràcia, Coordinadora Contra la Marginación de Cornellà, Coordinadora de Barrios de Madrid, Coordinadora Estatal de Solidaridad con las Personas Presas, Esculca (Observatório para a defesa dos direitos e liberdades), Eskubideak (Euskal Abokatuen Elkarte), Elxerat (Euskal Errepresaliatu Politikoen Elkarte), Federacion de Asociacions de Loita contra a Droga, Federación Enlace, Fundación Érguete, Gurasoak, Institut Drets Humans de Catalunya, Justícia i Pau, Movemento polos Dereitos Cívics, Observatori del Sistema Penal i els Drets Humans de la UB, PreSOS Extremadura, PreSOS Galiza, Rescat, SalHaketa (Bizkaia), SalHaketa (Araba), Torturaren Aurkako Taldea, Santurtziko Torturaren Kontrako Taldea, Xusticia e Sociedade.

Torturako Prebentziorako Koordinadora [www.prevenciontortura.org](http://www.prevenciontortura.org)

· Coordinadora per a la Prevenció de la Tortura · Coordinadora por la Prevención de la Tortura · Coordinadora pola Prevención da Tortura ·